

Kanalak:

Gure proiektuaren berri emateko webgune bat sortuko dugu. Orri nagusian egingo diren bidaiak, datak, prezioak, helmugak, helmugetako argazkiak, uharkak zeintzuk izango diren eta uharken argazkiak agertuko diren. Bertan gure zerbitzuen informazio guztia modu erraz eta erakargarri batean izango dute bezeroek.

Gurekin kontaktatu nahi duten bezeroek, web gunearen bitartez egin dezakete "kontaktua" atalean. Bertan, galdetegi bat betetzeko eskaera egingo zaie, beraien datuak eta interesak jasotzeko asmoz. Guk behin galdetegia jasota, telefonoz edota posta elektronikoz beraiekin kontaktuan jarriko gara.

Bezeroek edozein galdera izatekotan, web gunean agertzen den helbide elektronikoa idatzi ahal izango dute.

Beste komunikazio kanal batzuk izango ditugu. Bezero berriak erakartzeko, sare sozialak irekiko ditugu, besteak beste, Instagram, TikTok, eta Twitter. Horrela, gazteekin harremanak lortuko ditugu. Nagusiak erakartzeko, kartelak jarriko ditugu kaleetatik eta hainbat tabernetan.

Negozio batek arrakasta izateko gakoetako bat, marketin-estrategia paregabea da. Gure zerbitzuak ezagutzea eta haiekiko interesa izatea, eta modu egokian merkaturatzea lortu nahi dugu. Era berean, izaerarekin eta ingurunearekin koherentea izatea. Oso garrantzitsua da kontuan hartzea hileko publizitaterako aurrekontu bat izatea, baita bezeroen kopurua eta, salmentak handitzen joateko aukera zein den ikustea, gure enpresa hazten joan dadin. Beraz, publizitatearen bidez, lortuko ditugu diru-sarrerak. Publizitatea izango da gure faktorerik garrantzitsuenak, enpresa hau aurrera eramateko.